

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 258. alea - 2021eko urtarrila



ARANTZA IRIONDO


**“Harro gaude herriko  
odol-emaileen erantzunarekin”**





**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 27 05 / 049  
NIVEL 2



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

**Calbeton**



**JATETXEA**

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**50 UTE**

**BURU - ZURI  
Taberna**

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Lunfak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atari.deba.com



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



# AURKIBIDEA

4

## GUTUNAK

“Urteko batzarra egin du Zuhatzak”;  
“Debako Emakumeak Oholtzara”

8

## ALBISTEA

Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak administrazio hitzarmena sinatu dute

10

## ELKARRIZKETA

Debako Odol Emaileen Elkarteak kideekin solasean

13


## IRUDI-GALERIA

Ezohiko gabonak izan ditugu aurten; irudi sorta batekin egin dugu errepaso

16

## B. GAZTEA

Erreportajea: “Euskara bihotzean, baina egunerokoan?”



Arg.: Ander Salegi

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatzak**  
Hizkuntza Politikaren Aldizkaria

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetza) druz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatzak Euskara Elkarteak. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzioa

**Kontrazaleko irudia:** Martin Lores

**Publizitatea:** Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.





*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Urteko batzarra egin du Zuhatza Euskara Elkarteak

Zuhatza Euskara Elkarteak pasa den abenduaren 28an egin zuen Urteko Batzar Orokorra. Batzarrean, elkartearen funtzionamendua azaldu zuten, eta aurtengo ekimenen nondik norakoak eta aurrera begirako erronkak ere izan zituzten hizpide bileran bildutako bazkideek. Osasun-krisiak elkartearen egunerokoan izan duen eragina ere aztertu zuten.

Hitzordura hurbildu ez ziren zuha-

tzakideek edozein unetan izan dezakete eskura elkarteari dagokion informazio guzti-guztia: unean uneko egitasmoak, etorkizunerako asmoak eta, besteak beste, balantze ekonomikoa eta aurrekontua ere bai.

Horretarako nahikoa izango dute Zuhatzaren bulegora (Ifar kalea, 12) jotzea, 943 19 13 83 telefono zenbakira deitzea edota [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbide elektronikora mezu bat bidaltzea

berau eskatuz.

2021eko Batzar Orokorra gehiegi atzeratu gabe eta baldintza egokiagotan egitea espero du elkarteak, horrela bazkideak, aurreko urteetan bezala, lasai hurbildu ahal izan daitezten. Data zehaztu bezain pronto egingo da bazkideentzako deialdia, horretarako ohiko bideak baliatuta.

*Zuhatza Euskara Elkarteak*

## “Debako Emakumeak Oholtzara” jardunaldia, Talde Feministaren ekimenez



Joan den urtarrilaren 3an, Debako Talde Feministak antolatuta, “Debako emakumeak oholtzara” jardunaldia egin genuen Kultur Elkartearen. Lehenik eta behin, goizeko 10:30ean emakumeentzat antolatutako “Lotsak kanpora!” izenburuko tailerrean hartu genuen parte, lotsak kendu eta geure burua ahalduntzeko ahalegina eginez.

Jarraian, “Emakume musikariak solasean” mahai-ingurua jarraitzeko aukera izan genuen. Bertan, Eunete Urkia, Maialen Tellabide eta Martina Soto izan genituen gonbidatu gisa. Ondorio interesgarriak atera genituen. Batetik, aipatu zen musika eskoletan instrumentuaren araberrako generosegregazio nabarmena dagoela. Horrez gain, emakume askok musika instru-

mentu bat jotzen ikasiagatik, oholtzarako saltoa ematean arrakala bat sortzen da, emakume gutxi ematen dutelarik agertokirako pausoa. Horien arrazoia azaltzerakoan, bi hitz nabarmendu dira: dibertsioa eta erridikulua.

Emakumeak heziak izan gara gauzak ongi eta taxuz egiteko; aldiz, gizonen oholtzara igo eta dibertitzeko pribilegioa dute, musikari bikainak ez izanagatik ere. Gainera, musika motaren arabera ere badago generoari dagokion desberdintasuna. Erromeria taldeetan emakumeak aurkitzea, esaterako, ez da zaila, baina rock, punk edo ska taldeetan egoera bestelakoa da.

Musikak dituen beste arazo batzuk ere identifikatu genituen mahai-inguruan zehar. Esaterako, gizartean musi-

kari ematen zaion garrantzia justua da hezkuntza publikotik hasita, eta azpiegitura falta ere badago. Etorkizunera begira, erreferente falta argi geratu denez, horiek sortzea eta musika estilotan aniztasuna sustatzea beharrezko ikusi da.

Arratsaldean, “Emakumeak oholtzara” izeneko dokumentala proiektatu zen eta, ondoren, ikusitakoari buruzko hausnarketa laburra partekatu genuen bertan bildutakook. Azkenik, hainbat emakumek eskaintako musika kontzertuez gozatzeko aukera ere izan genuen. Debako Toi Et Moi taldea eta Eibarko Hemen taldea izan genituen geure artean.

*Debako Talde Feminista*

## Lau hitzaldi eta bi saio praktiko naturan "Osasunaz beste begirada bat" zikloaren barruan



Azken urte honetan, komunikabideetatik eta toki guztietatik, debekuan eta distantziamendu sozialean oinarritutako betebeharrak agintzen dizkigute, baina inon ez dugu entzuten zer egin behar dugun gure osasunari indartsu eusteko.

Egoera honetan, inguruan eta guban sumatutako jarrera, jokaera eta emozioen orekarik ezaren aurrean geldi eta begira soilik egon ezinak batu gaitu egunerokoan ertz ezberdinetatik osasunaren alde lanean gabiltzan hainbat herritar.

Hala ere, guztiok jabetzen gara urte honek atzetik datorren zulo bat azaleratu besterik ez duela egin, lehendik dagoeneko berez eusten ez zen egoera bat bortizki lehertu eta, horregatik, badakigu aurreko beste edozein urtetan ere zentzu osoa izango luketela egin ditugun hausnarketek.

Beraz, orain elkartu garen arren, gure helburua ez da hertsiki aurten COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko moduei buruzko hausnarketa egitea. Ez, gure helburua norbanakook gure osasunari eusteko ditugun gaitasun, ezagupen eta tresnez edo horien gabezia kontziente egitea da, eta horrela, nahikoa ez direla ohartuz gero, elkarrekin egoera hori iraultzeko moduak bilatzea, ezagutzea eta barneratzea, elkar zaintzean ere sakonduz.

Gizartearen isla gara gu ere; hortaz, esaerak dioen moduan, "zenbat buru, hainbat aburu". Ez ditugu denok mundua eta bere gorabeherak ulertzeko modu berberak, ezta COVID-19aren inguruko gai guztiez iritzi berberak ere, jakina. Baina denok batzen gaituena askoz handiagoa da bereizten gaituena baino, denok ikusten dugu norberak paper garrantzitsua duela bere osasunarengan, ardura hori ezin dugula besteren eskutan utzi, eta ahalegin horrek trukean, ahalduntzea, askatasuna eta egun bereziki hain preziatua den segurtasun-sentsazioa ekartzen dizkigula; osasun-burujabetza, finean.

Denok batzen gaitu, era berean, ongizatearen iparra euskarak hain ongi jasotzen duen osotasunaren ideian ikusteak. "Osasuna", "osatu" diogu euskaraz... beti osotasunari erreparatu behar diogula ahantz ez dezagun. Hizkuntzak hitza eguneroko gure ahotan jartzen digun arren, gure iritzi, ideia hori gehiegitan ahaztu egiten dugu, ordea. Azkenean, gizarte-eredu hau ongien definitzen duten denborarik eza, estresa, eta mila egin-beharretara iritsi ezinak ez dute laguntzen bizitzan garrantzirik handienetarikoa beharko lukeenari behar duen denbora eskaintzen eta, beraz, osasuna eta gorputza zatika ulertuta, bagoaz halamoduz aurrera, batzuetan arrastaka, urteak joan eta urteak etorri adabaki-mapa bat bihurtzen goazen heinean.

Hori guztia dela eta, osasunaren alderdi ezberdinez mintza-



5G-aren inguruko hitzaldia egin zen hilaren 14an Kultur Elkartean.

tuko zaizkigun adituei entzuteko eta osasuna praktikan jartzeko aukera izango dugu antolatu ditugun lau hitzaldi eta bi saio praktikoetan. Horietako bi lehenak egin dira dagoeneko:

Urtarrilaren 14an "5G. Zer da? Zer eragin dute uhin elektromagnetikoe?" hitzaldia izan zen Kultur Elkartean Isabel Moreno 5Garen moratoriarako estatu eta erkidegoko koordinakundeko kidearen, eta Asier Arregi nekazal ingeniari eta geobiologoaren eskutik.

Urtarrilaren 21ean, berriz, "Nola zaindu osasuna garai hauetan, txertoa zu zeu zara" hitzaldia eman zuen Arturo Vinuesa familia mediku eta mediku integratzaileak Kultur Elkartean.

Baina "Osasunaz beste begirada bat" ziklo beraren barruan egingo dira laster datozen hauek ere:

Urtarrilaren 23an, larunbata, tailer praktiko bat izango da: "Dantza libre, gorputza askatzen", Uxue Pascualen eskutik, hondartzan 13:00etan.

Urtarrilaren 28an, osteguna, "Zer da bizitza osasuntsua, elikaduratik gure interdependentziak arakatzen" hitzaldia eskainiko du nutrizio eta osasunean doktore den Goiuri Alberdik, Kultur Elkartean 19:00etan.

Otsailaren 4an, osteguna, "Heriotza eta dolua gure gizartearen" hitzaldia izango da Amaia Gozategi, Orioko Mandalara elkarteko idazkari eta koordinatzailearen eskutik, Itziariko Burugorri, 19:00etan.

Azkenik, otsailaren 6an, larunbata, sendabelarrak ezagutzeko txangoa izango da Gela Berdea taldearen eskutik, Lasturren 11:00etan.

Osasuna ulertzeko gure moduarekin bat egiten baduzu, edo bat egin ez arren beste ikuspuntu batzuk ezagutzeko prest bazaude, hurbildu eta has gaitzen elkarrekin gure barneko osasun haziak ureztatzen.

*Osasun Haziak taldea*

**"Beste ikuspuntu batzuk  
ezagutzeko prest bazaude,  
hurbildu eta has gaitzen  
elkarrekin  
gure barneko osasun  
haziak ureztatzen"**






Estibaliz Beltran de Heredia

*Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna*


# Liburu artean

Orain dela hamar urte Xabier Lete zendu zen, 2010eko abenduaren 4an. Urteurrenaz baliatu nahi dut, Xabier Lete gogoan, berak argitaratutako liburu zein diskoak edota berari eta bere poemagintzari buruzkoak zuei aurkezteko (liburutegian ditugunak); izan ere, amaitu berri den urtean hainbat lan interesgarri kaleratu dira bere poema eta abestien inguruan; horren adibide dira Alex Gurrutxagak ida-

zitako "Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria", Ainhoa Urienek argitaratutako "Poesia zaurien ukendua", hamar saiakera laburrez osatutako "Urrats urratuak Xabier Lete gogoan", 22 kantu biltzen dituen "Ni naiz. Antologia" eta Eugenio Ibarzabalek oiartzuarrari irratian egindako elkarriketa jasotzen duen "Xabier Lete de un tiempo de un país, retrato del artista en 1978" liburua.




**Kantazera noazu [CD]**  
Xabier Lete  
Elkar, 2006.



**(Auto) biografia bat**  
Xabier Lete  
Inazio Mujikak egindako testu hautaketa.  
Alberdania, 2011.




**Biziaren ikurrak**  
Xabier Lete  
Erein, 1992.



**Eskeintza [CD]**  
Xabier Lete  
Elkar, 1991.



**Egungentziaren esku izoztuak**  
Xabier Lete  
Pamiela, 2008.



**Hurbil iragana [CD]**  
Xabier Lete  
Elkarlanean, 1998.




**Xabier Lete [CD]**  
Xabier Lete  
Elkar, 2010.



**Neguan izan zen [DVD]**  
Xabier Lete  
Pamiela, 2009.



**Abestitzak eta poema kantatuak**  
Xabier Lete  
Elkar, 2006.




**Elurra ikusi dut.**  
Koldo Izagirrek bildutako antologia  
2017.




**Zuzenean: Erreterian 1999.IX.25 azken kontzertua [CD]**  
Xabier Lete  
A&M Kultur Promotora, 2011.



**B. Gandiaga, Artze eta X. Leteren poemagintza: poesia tradizionalaren bidetik**  
Amaia Iturbide  
Erein, 2000.



**Xabier Lete Bergaretxe: zuekin nago kantatzen**  
Inazio Mujika Iraola  
Eusko Jaurantziaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia,  
2012.




**Xabier Lete tiki**  
Anton Kazabon  
Denonartean, 2020.




**Xabier Lete, aberriaren poeta kantaria**  
Alex Gurrutxaga  
Alberdania, 2020.



**Poesia, zaurien ukendu**  
Ainhoa Urien  
Pamiela, 2020.




**Urrats urratuak, Xabier Lete gogoan**  
Hainbat idazle  
Balea Zuria, 2020.



**Ni naiz, Antologia**  
Anjel Valdesek bildutakoa  
Elkar, 2020.

## Eremu gorrian sartu da Deba eta Udalak elkar zaintzeko deia egin die herritarrei



Aldizkari honen edizioa ixtear zela, urtarrilaren 18an hain zuzen, jakin genuen Deba ere eremu gorrian sartu dela, COVID-19ak EAEn herriz herri izandako eragina neurtzen duen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren semaforoaren arabera. Nolanahi ere, astean birritan eguneratzen du Jaurlaritzak eremu gorrian sartu diren herrien zerrenda; beraz, baliteke udalerrria bestelako egoera batean egotea epe motzean -eta aldizkari honek argia ikusi orduko-.

Udalak prentsa ohar batean azaldu zuenez, Osakidetzak argitaratutako datuen arabera, Debako udalerrrian azken 14 egunetako koronabirus kasu positiboan intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 586,83koa zen urtarrilaren 18an. Horren ondorioz, eremu gorrian sartu eta Jaurlaritzak ezarritako neurri murriztaileak aplikatzen hasi ziren urtarrilaren 19an.

Osasun agintariek COVID-19aren hedapena murrizteko ematen dituzten jarraibideak aintzat hartzeko eskatu die Debako Udalak herritarrei; "elkar zaintzeko garaia da, bereziki egoera zaurgarrian dauden ingurukoak babestu behar ditugu".

Udalaz gorako administrazioek ezarritako irizpideen arabera, hauek dira

eremu gorrian sartuta dauden udalerrietan aplikatzen diren neurriak:

### -Pertsonen mugikortasuna:

Ezin da udalerritik irten, arrazoi justifikaturik izan ezean. Ondoko herrira ere ezin da joan, mugatuta baitago pertsonen sarrera eta irteera udalerriarren mugetatik.

### -Ostalaritza:

Taberna eta jatetxeak itxita egongo dira. Etxera eramateko eskaerak 21:00ak arte egin daitezke eta, beranduenez, 22:00etan jaso. Ezin da joan beste herri bateko taberna batera.

### -Erosketak:

Debekatuta dago erosketak egiteko udalerritik ateratzea funtsezko erosketa eta zerbitzuetarako izan ezik; baldin eta herrian horiek ez badaude.

### -Kirola:

Maila profesional edo erdi-profesionalen taldeen entrenamenduak eta lehiaketak mantendu daitezke eta, horiez gain, edonork egin dezake kirola; betiere aire zabalean, gehienez 6 pertsonako taldeetan eta udalerriko mugen barruan.

### -Neurrien indarraldia:

Intzidentzia-tasa 500etik jaisten ez den bitartean. Eusko Jaurlaritzak astelehen eta ostegunetan argitaratzen du eremu gorrian sartuta dauden udalerrien zerrenda.

## Nora Formarizek irabazi du Apakin Guraso Taldeak zozketatutako saria

Nora Formariz izan da Apakin Guraso Taldeak proposatutako euskararen inguruko galdetegiaren parte hartzeagatik zozketatutako sariaren irabazlea; Lasturko Gailur Zaldiketa Eskolan lau pertsonarentzat ibilaldia irabazi du sarituak.

Apakin Guraso Taldeak jakinarazi du ondorengo hilabeteetan ere Luzaro eskolako gurasoei euskara sustatzeko asmoz bideo batzuk bidaltzeko asmoa daukala, eta inkestetan parte hartzeko gonbitea ere egin du.



IGOR LARRAÑAGA

### José Ramón

Badira hamar hilabete José Ramón Berriatura iritsi zela, eta baso-lanetan dihardu geroztik. Lanean hitz gutxiko gizona, baina edozer galdetuz gero zintzotasun eta begirune handiz erantzuten duena. Hala ere, bai nik bai laguntzera etorri ziren ilobek ere esandako erdiak ulertzen nahiko lan izan genuen. Ertameriketako hizkera kolokialak antz gutxi du-eta Deban kalean erabiltzen den erderarekin.

Ez da enpatia-gaitasun handirik behar, ordea, José Ramónek lau esalditan azaldu zizkigun egoerek barruak mugiarazteko. Bizi zen lurraldean oso ohikoak dira heriotzari begirunea galdu dioten gaizkile taldeek lapurretak edo hilketak burutzea, eta hilotzak, abisu edo mezu gisa, kaleetan egunetan zehar begibistan lagatzea.

Baina José Ramónek argi du gure artera ez dela erruki edota penarik ematera etorri. Lan gose da gizona, eta basoan aurkitu ditu inork gutxik egin nahi dituen lan gogor eta arrisksuak. Hiru kalekume ginen berak moztutako egur zatiak baratze bazterrean pilatzen, eta ezin genituen sutarako ziren egur zati guztiak jaso moztzen zituen abiaduran. Hori gutxi ez eta gurean bukatu zuenean, inguruko baserri batean hesolak egiteko plana zuen egun-argia genuen bitartean.

20 urteko semearen eta 15 urteko alabaren aita da José Ramón. Seme-alabak lanean edota ikasten diren galdetzean, ez zekiela erantzun zidan. Azken hamar urteetan ia ez zituelako ikusi ere egin.

Berehala konturatu nintzen zeinen azkar epaitu nuen. Hasierako enpatiak sorrarazi zidan interesa eta laguntzeko eskuzabaltasuna nola ahuldu ziren "klase ertaineko" aita baten betaurrekoetatik begiratzerakoan.



## Elkarlanerako administrazio-hitzarmena sinatu dute Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak

Abenduaren 17an egindako osoko bilkuran Debako udalbatzak aho batez onartu zuen Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren arteko eskumen-araubidea arautzen duen hitzarmenari lehen onarpena ematea -aurrez, hilaren 9an Itziarko Auzo Udalak egin zuen bezalaxe-.

Eta, hurrengo egunean, abenduaren 18an, bi aldeek hitzarmena sinatu zuten Itziarko Kontzeju Etxean egin zen ekitaldian; aurrera begira elkarlanean aritzeko "oinarri sendoa" jarrita. Gilen Garcia Debako alkateak eta Arantza Egaña Itziarko auzo alkateak sinatu zuten idatzia bi instituzioen izenean. Haiekin batera egon ziren Debako udalbatzako EH Bilduko eta EAJ-PNVko ordezkariak eta Itziarko juntakideak. Eider Mendoza Gipuzkoako Gobernantza diputatua eta bozeramalea ere ekitaldian egon zen. Debako udalbatzako Debarren Ahotsako kideak, berriz, ez ziren bertaratu.

Gilen Garcia alkatearen iritziz, "udal gobernuaren lana ongizatea eta proiektu berriak garatzea baldin bada ere, atzetik datozen gatazka edo arazoak konpontzea ere bada gure lanetako bat eta zentzu horretan uste dugu hitzarmen hau sinatu izanak esan nahi duela gobernantza eredu berri batera goazela. Hori alderdi guztien elkarlanetik abiatu denez, oso eskertzekoa da azken urtean parte guztietatik egon den jarraera eraikitzailea eta guztiak zoriondu nahi ditut".

Debako Udalbatzak 2014ko ekainean Itziarko Toki Entitate Txikiaren txosten justifikatiboa onartu eta 2015eko urtarrila bukaeran GFAk 3/2015 Foru Dekretua argitaratu ostean, urte bereko otsailaren 27an eratu zen Itziarko Auzo Udala.

Debako Udalak prentsa ohar batean gogorarazi duenez, "Itziarko bizilagunen autogobernurako nahi historikoa bidebatzea izan zen Auzo Udala eratzearen arrazoi nagusia,



horrek zerbitzuen hobekuntza eta auzoetako beharrak errazago identifikatzeko aukera ekarriko zuelako, betiere Debako udalerraren interes orokorrak kaltetu gabe". Hori horrela izango delakoan daude bi instituzioetako ordezkariak. Akordiorako eta elkarlanerako egondako borondatea nabarmendu zuten ekitaldian.

Arantza Egaña Itziarko auzo alkatearen esanetan, "gure helburua beti izan da Itziarko herritarrek ahalik eta zerbitzurik onenak izan ditzatela eta hitzarmen honen helburua ere hori da. Uste dugu, baita ere, beste zenbait udalerriri begira ere eredugarria izan daitekeen hitzarmena dela hau".

Hitzarmenean, bi erakundeen arteko lankidetzeta eta bakoitzari dagozkion eskumenak zehazten dira -[www.deba.eus](http://www.deba.eus) atarian dago irakurgai-. Hitzarmena sinatzearekin batera, adierazpena irakurri zuten hainbat ordezkariak bi udalbatzen izenean: Gilen Garcia Debako alkateak, Arantza Egaña Itziarko auzo alkateak, Itziar Irizar EH Bilduko ordezkariak, Iñigo Cambronero EAJ-PNVko ordezkariak eta Maider Lopetegi Itziarko juntakideak.

## iritzia



**MALEN  
ALKORTA**

Gipuzkoako Baratze Parke Sarea 2013an jarri zuen martxan Ekoguneak eta dagoeneko 22 baratze ditu lurralde osoan sakabanaturik: Donostialdean, Goierriin, Oarsoaldean eta Urola bailaran. Debabarrenean, aldiz, ez dago Ekogunearen herri-baratzerik, eta Debagoienean Elgetakoa da bakarra. Horrelako ekimenak, alegia, herri-baratzeak eta baratze komunitarioak, mundu osoan zehar egiten dira eta, horrela, bizitza eredu jasangarri baten aldeko apustuari erantzuna ematen diote.

Aipagarriak dira ondorengoak: herritar guztiei zabalduzako gune berdeak dira, autokontsumorakoak, modu ekologikoan ekoiztutakoak, eta auzolana eta gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza sustatzen dutenak. Deban bizilagunen alde-

tik harrera ona izango luke era honetako ekimen batek. Sare honen parte izateko Udalaren parte-hartzea ezinbestekoa izanik, arestian egindako eskaerei erantzun bat emateko, eta ekologia eta lurraren ekoizpen jasangarri baten alde egiteko eskatu nahi diot Udalari. Ekogunearen baratze-sarea adibide gisa hartu eta hori ez den beste eredu bati jarraitu nahi izanez gero ere, hala bedi!

Lurra lantzeko ez da lur-jabe izan beharrik, eta udalerririk badu herritarren esku jartzeko nahikoa landa eremu. Gainera, Debako gazte jendeak ederki aprobetxatuko luke herri-baratzea. Gazteak bertan bizi nahi izatea bilatu behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da haiei bideratutako ekimenak sustatzea.

### Herri-baratzea



## Ehundik gora herritar bildu dira Sarek preso eta iheslarien alde deituriko mobilizazioetan

Egungo egoera dela eta, urte hasieran Bilbon egiten den presoan aldeko manifestazioa ezin izan da aurten egin. Hala ere, Sare plataformak deia egin zuen urteroko mobilizazio orokor hori herrietara ekartzeko, eta "Izan bidea" lelopean, urtero Bilbora joateko autobusa hartzen dutenak herrian biltzeko.

Horrela, urtarrilaren 7an, Deban ekitaldia egin zen Aldats pilotalekuan, eta ondoren manifestazioa kaleetan zehar. Ekitaldian dantza, ipuin-kontaketa eta kantuz lagundurik, Sareko kideek preso eta iheslarien egoeraren berri ematen zuten eta haien eskubideak bete daitezela aldarrikatzen zuten komunikatua irakurri

zuten. Ekitaldiaren osteko manifestazioan, berriz, presoak etxeratzeko oihuak izan ziren nagusi. Giro hotza izanagatik ehundik gora lagunek egin zuten bat deialdiarekin. Deban ezezik Itziarren ere hainbat herritar gerturatu ziren mobilizaziora.

Debako Udalak Sarek antolatutako ekimenekin bat egin zuen eta herritarrak horietan parte hartzeragonbidatu, hala egitea erabaki baitzuen abenduaren 17ko ohiko osoko bilkuran Sarek aurkeztutako mozioa onartzuz.

Bilkura horretan EH Bilduk eta EAJ-PNVk mozioaren alde bozkatu zuten eta kontrako bozka eman zuten Debarren Ahotsak.



AINARA SEDANO

### Jakitunak

Amaitu berri dugun urteak gauza anitz ipini dizkit mutur parean. Aurretik ezagutzen ez genituen egoeren aurrean ikusi dugu gure burua eta horien aurrean zein jarrera hartu erabaki behar izan dugu; bakoitzak bere erara eta ahal izan dugun moduan. Eta zurrumbilo honetan konturatu naiz gizartea adituz beteta daukagula, toki guztietan daukagula, inguratuta gaudela, eta ez ditugula hain erraz engainatuko; dena baitakite.

Badakite birologiaz, sintomatologiaz, kutsaduraz, pertsona nagusientzat hoberena zer den, eta txikientzat, sanitarioentzat eta enpresariarentzat, tabernariarentzat... Herralde urrunetako politikak edo kudeaketa-sistema efizienteenak sakon ezagutzen dituztenak, jende masentzako erabakiak hartzeragohituta daudenak eta gainera erabaki egokienak hartuko lituzketenak; beste batzuek eragin dituzten triskantzak samur aurreikusi eta erraz baino errazago ekidingo lituzketenak.

Egia esan oso-oso harrিতuta nago ez nekielako hainbeste ezaguera eta jakituria neukanik hain gertu. Neure buruari galdetzen diot gizarte honek nola uzten digun hainbeste talentu alferrik galtzen eta "jakintsu" hauek harategian, herriko plazan, edo bizitza guztiz arruntak egiten egon ordez, nola ez dauden estamentu gorenetan mundua xuxen-xuxen kudeatu eta zuzentzen. Errex-errex. Hutsik egin gabe.

Nik 2021erako gonbidapena luzatzen dizuet denoi, jakitunak barne: esan gutxiago, egin gehiago... eta ondokoari hainbeste begiratu ordez, norberak mundua nola hobetu dezakeen pentsatu... eta egin. Norberak.



## Deba eta Zumaia arteko tren zerbitzua berrezarri da

Euskotrenek eta Euskal Trenbide Sareak (ETS) Deba eta Zumaia arteko tren zerbitzua berrezarri dute urtarrilaren 14an, kostaldeko bi herrien artean ETSk Bilbo-Donostia lineako sei tunel eraberritu ostean.

Joan den azaroaren 24tik tren zerbitzua etenda egon denez, autobusez egin den garraio-aldaketa alternatiborekin bete da. Zerbitzuen maiztasuna ere handiagoa izan da orain artean.

Egindako lanen xede nagusia Santa Katalina, Itxaspe, Atxuribi eta Sakoneta I, Sagarbide eta Baionako tunelek zituzten egiturazko arazoak

konpontzea izan da. Lanen aurrekontua 1,5 milioi eurokoa izan da, BEZ aparte.

Proiektuetan jaso diren, eta batez ere zertxak eta proiektatutako eta armatutako hormigoia erabiliz gauzatu diren eraikuntzarako soluzioak behar bezala egiteko, lanak hainbat fasetan banatu dira: trenbideko instalazioak, komunikazioak, erdi-tentsioeko sarea eta katenaria desmuntatzea; eremu jakin batzuetan harlandua pikatzea; zertxekin eta proiektatutako hormigoiarekin indartzea eta instalazioak lehengoratzeta.

## “Odola jasotzeko eskubidea dugula uste badugu, emateko erantzukizun partekatua ere izan beharko dugu”

**Ez dituzte sarri titularrak betetzen, ez digute telebistako berrietan maiz haietaz hitz egiten; horregatik, gutxitan gogoratzen ditugu odol-emaileak. Hala ere, talde hauen eta atzetik duten jende anonimo guztiaren konpromisoaren garrantzia berebizikoa da, edo areago, bizia ematen duena! Horregatik jo dugu Arantza Iriondorengana, Debako Odol Emaileen taldeko arduradunarengana, osasun-krisiko sasoi berezi honetakoez eta odol-ematearen ingurukoez gehiago jakiteko asmoz.**



Debako Odol Emaileen taldeko egungo kideetako batzuk, tartean Arantza Iriondo (eskuinetik hasita bigarrena).

Osasun-krisi honek sortu duen kezak/beldurrak borondatez odola ematen dutenen kopurua gutxiti al du?

Segurtasun-neurriak bermatu behar mugatu du kopurua, ez pertsonen borondateak. Erantzun bikaina izan dugu Deban. Emanaldi guztietan osatu ahal izan da beharrezko pertsona kopurua. Denetan geratu da norbait eman ezinik kopuru mugatzea dela medio. Oso harro gaude herritarrek emandako erantzunaz.

Zenbatean behin izaten dira Deban odol-emateak eta denak burutu ahal izan al dira?

Emanaldi kopurua mantendu egin da, urtean lau aldiz; otsaila, maiatza, abuztua eta azaroan.

Itziarren bertan izaten al da odola ateratzeko aukerarik?

Bai, noski, Itziarren bertan izaten dira odol-ateratzeak urtean hirutan. Beste delegaritza bat dago bertan hortaz arduratzen dena, eta badakigu itziartarrak ere erantzun bikaina ematen ari direla.

Iaz 80 lagun inguruk ematen zuen aldiko Deban odola. Aurten kopuru horiek zenbatean dabilta?

2019an 82 pertsonako batez bestekoa izan genuen eta 2020an, berriz, 76koa.

Osasun-krisia dela eta, aurten neurri berezirik hartu al duzue odola emateko?

Bai, noski, pertsona pilaketak ekidite-

ko txandak banatzen ditugu odol-ateraldiaren astean. Odol-ematearen osteko otordua ere bakoitzari banatzen zaio erditi partekatu beharrean, eta, nola ez, garbitasun eta desinfekzio aldetik ere beharrezko neurri guztiak hartzen ditugu.

### **“Gazteak odola emateko kontzientzia hartzen hasiak direla dirudi. Bide horretan segitzea eskatuko diogu urte berriari”**

Aforo eta txandek emaile kopurua alde aurretik mugatu dutela diozu...

Bai, hogeitun minutuko txandak izaten dira, sei lagun aldiko. Nahiz eta beti hartzen ditugun lauzpabost bat gehiago, beti egoten baita norbait eman ezin duena ere. Baina beti, noski, segurtasuna bermatzen da.

Urtero udazkenean omenaldia egingen zaie odola ematen duten eskualdeko boluntarioei Eibarren. Iaz Debako zortzi lagun omendu zituzten. Aurten ere egin ahal izan al duzue ekitaldia?

Bai, urtero egin izan ohi dugu omenaldi hori; 25, 40, 50, 60 eta 75 aldiz odola eman dutenei diploma eta oroigarria ematen diegu, baina tamalez aurtengoan

egoera dela eta ezin izan dugu burutu. Dena den, ahal den unean egingo zaie aurtengoei ere merezitako omenaldia.

**Hainbeste ziurgabetasun dagoen garaian, zalantzak piztu daitezke: koronabirusean positibo eman duen norbait eman al dezake odolik? Nolabait kontrolatzen al da gai hori?**

Bai, gai hori odol-ateratze egunean etortzen den medikuak zaintzen du, bakoitzaren informazio eta pribatutasuna mantenduz.

**Ba al dago gure herrian odol-emaile profil jakinik?**

Guk 2020. urteko datuetatik nabarmenduko genukeena 13 emaile berri izatea da, gazteak pixka bat kontzientziaz hasiak direla dirudi. Bide horretan segitzea eskatuko diogu urte berriari.

**Zein dira odola emateko baldintza orokorrak?**

Emaileak 18 eta 65 urte artean izan behar ditu eta 50 kilo baino gehiago. Gizonezkoek lau aldiz eman dezakete odola gehienez urtean, emakumezkoek, berriz, hirutan.

**“Besarkaden zain, besoen beharretan” da aurtengo zuen lema...**

Besarkadak eman eta jasotzeko zain gauden bitartean, besoen beharra izaten segitzen dugu. Pertsona ugari dago gure besoen emariaren zain bizirik segi ahal



izateko. Beharra duen pertsona bat berrakatzeko era berezia dela uste dugu. COVID-19ak besarkada fisikoez pribatu gaitu, baina bizia salbatzen duten besarkadak ematen segitzeko aukera eskaintzen du.

### **Noiz sortu zen Debako Odol Emaileen elkarteak?**

Ez dakigu zehazki noiz sortu zen Debako delegaritzak, baina badu istorio bat atzetik. Dirudienez, debar batzuk Bilbora joaten ziren Athleticen partida ikustera, eta behin, bidean zihoazela, auto-istripu bat ikusi eta laguntzera gelditu ziren. Egun batzuk beranduago, garai hartan mediku ziren Faustino Del Corte, Ustaritza eta Gonzalez Muriel medikuekin hitz egin zuten, baita Eduardo Galarraga, Pili Andonegui eta beste batzuekin ere. Horrela, nolabait eman zioten forma odol-emaile beharri erantzuteko anaitasun elkarteari.

Dirudienez, orain Itxas Gain taberna dagoen tokian lokal bat zegoen eta bertan hasi ziren odol-ateratzeak, Faustino medikua, Agustina Cortabarría, eta Donostiatik etortzen ziren langileekin. Odola kristalezko ontzietan bildu eta hala eramaten omen zuten ospitaleetara.

Gipuzkoako Odol Emaile elkarteak 1964an sortu zen. Debako Odol Emaile elkarteak sortu zutenak (Eduardo Galarraga, Pili Andonegi, Angel Larrañaga eta Fidela Aizpurua) 1987-1988ra arte egon ziren elkarteak, orduan hartu genuen guk testigua.

### **Nola baloratzen duzue orain arte egindako ibilbidea?**

Zorionez, gauzak asko aldatu direla esan genezake. Delegazioak guk hartu genuenean, fitxaz beteriko artxibo metaliko bat erabiltzen genuen, dena eskuz bete behar izaten zen, etab. Diru-laguntzarik ez eta kostuak kubritzeko kalera atera eta poteekin borondate-eske aritzen ginen.

Orain, berriz, dena informatizatuta dago, eta zorionez Debako Udalak bere gain hartzen ditu delegazioaren gastuak.

### **Zuen familia beti izan da erreferente elkarte honetan. Nola iritsi zinen zu zehazki elkartera?**

Eduardo Galarragak utzi zuenean hasi ginen, 1987-1988 urte inguruan. Ramon Maiztegi zen bailarako arduraduna garai hartan, eta Jabierrekin lan egiten

zuenez, berak konbentzitu zuen Jabier.

Jabierren heriotzaren ostean, lagunaren babesa izanik, segitzea erabaki genuen.

### **Zein da gaur egun taldearen funtzionamendua?**

Gure betebeharra Debari eskatzen zaizkion helburuak betetzea da. Adibidez, 2020ko helburua 165 odol-emaile izatea zen, eta justu samar bada ere lortu dugu, 172 odol-emaile izan baikara, baina ezin gara erlaxatu.

Boluntarioak gara, noski. Nik buru egiten dudan arren, kuadrilla ederra daukat laguntzen, eta eskerrak! Bestela ezinezkoa litzateke hau.

## **“Erietxera joan eta denok uste dugu odola jasotzeko eskubidea daukagula, beti egoten dela, nondik edo nola iristen den pentsatzen hasi gabe”**

### **Zer nolako harremana duzue inguruko odol-emaileen elkarteekin?**

Gipuzkoa mailan gaude gu antolatuta. Herri bakoitzak bere delegazioa dauka, eta bailarako ordezkari arduradun bat. Urtean behin egiten da Gipuzkoako batzar orokorra, delegaritzak bakoitzak bere ordezkaritza du bertan, eta dagokion zuzendaritza lau urtetik behin bozkatzen da. Gaur egun Gipuzkoako lehendakaria Sabin Urcelay da.

### **“Odol-transfusioa eskubide bat baldin bada... odola emateak erantzukizun partekatua izan beharko luke” entzun izan dizuegu.**

Jakina, erietxera joan eta denok uste dugu odola jasotzeko eskubidea daukagula, beti egoten dela, nondik edo nola iristen den pentsatzen hasi gabe. Arrazoi asko entzun ohi ditugu odolik ez emateko; eman ezina, gogorik eza, orratzei beldurra...

Inoiz entzun izan dugu hau ere: “ba emango dit ama, anaia edo arreba unean”... Baina hori ez da horrela. Bartzelonako atentatua denok oroituko dugu zoritxarrez. Odol-emaileak lortzeko deialdia egin zen, eta oso arrakastatsua izan omen zen. Bada, egun horretan zauritu ziren pertsonak ez ziren bizirik atera orduantxe odola ematera joandakoengatik, normaltasunean ematen dutenengatik baino. Ongi etorria izan zen, noski!, baina odol horrek bere prozesua jarraitu behar du beste norbaiti transfusioa egin aurretik. Hor dugu Hiart Compaignon debarraren kasua ere, muina transplantatu zioten Hiarti, eta 100 transfusio baino gehiago behar izan zituen.

Hala da, jasotzeko eskubidea dugula uste badugu, emateko erantzukizun partekatua izan beharko dugu.

### **Beste zerbait gehitu nahiko bazenu, Arantza, hurrengo lerroak zureak dira...**

Eskerrak eman nahi nizkieke odol-emaile guztiei bihotz-bihotzez une latzetan ere hor egotearren. Zuhatzakideoi, Udalari eta ikastetxeari ere eskerrak.

Jubilazioa hurbil daukagu; beraz, norbaitzuk txanda hartzera animatuz gero, gerturatu lasai eta pozik erakutsiko dizuegu elkartearen funtzionamendua.



1994ko apirilaren 17an Deban egindako Gipuzkoako Odol Emaileen asanblada.

Deba-Itziar

# BIRA



## ABENDUKO BIRA | SARIDUNAK



Xabier Etxabe  
Eider Duñabeitia  
Naroa Laka  
Iñaki Saenz  
Aiora Salegi



Jordina Arnau  
Maidar Zubikarai  
Ainara Aranberri  
Mirian Arrizabalaga  
Enara Castrillejo

Mitzi Robledo  
Iker Zubikarai  
Kaiet Aristi  
Itziar Enbil  
Rosa Mari Gorrotxategi

\*Bonoak 2021/02/15 baino lehen gastatu beharko dira, Deba-Itziarko komertzioetan

## URTARRILEKO BIRA:



1. Zein kontzentrazio-esparrutan erail zuten Jose Mari Irusta Mugarza?



2. Non kokatzen da ezkerreko argazkiko gurutzea?

- A) Goikoetxe baserri ondoan
- B) Kortaberri baserri inguruan
- D) Murgizar baserriko bidegurutzean
- E) Irure baserri inguruan



3. Zein musika taldeetako abeslaria da Josune Arakistain lasturtarra?




4. Zein kiroletan lortu berri du Amagoia Arrietak urrezko domina?

- A) Goalball D) Saskibaloia
- B) Txirrindularitza E) Boccia



5. Noiztik da Arantza Egaña Itziarko auzo alkate?



6. Non kokatzen da ezkerreko argazkiko borda?

- A) Goikoetxe baserri ondoan
- B) Lasturren
- D) Irure baserri inguruan
- E) Esteixa baserri ondoan

## PARTE HARTZEKO:

[www.labur.eus/BIRA\\_urtailla](http://www.labur.eus/BIRA_urtailla)

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Zortziko erlauntzako produktuen  
**30 euroan baloratutako**  
**bost sorta** banatuko dira

Zortziko erlauntzako produktuen  
**15 euroan baloratutako**  
**hamar sorta** banatuko dira

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **otsailaren 7a**

Irabazleen izenak otsaileko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**



# Ezohiko gabonik hotzenak

2020a gogora ekartzerakoan ez genuke koloretsu izenondoa erabiliko seguruenik. Hala ere, urte bukaerak, zorionez, utzi dizkigu horrelako irudiak; muga denen gaintik koloreek jantzi zizkiguten bazterrak, eta elkartu berriz herritarrak. Urtea hasi eta zuria gailendu, dena bat.







## Harrera beroa Laburbira zirkuituko euskarazko film laburrei

Joan den abenduaren 26an (larunbata) egin zen azkenean Laburbira euskarazko film laburren emanaldia Kultur Elkartearen, Zuhatza Euskara Elkartearen bazkide kanpainaren barruan. Egun hotzean, aforo mugatuaz eta neurriak zaindiz izanda ere, 35 lagun inguratu ziren euskarazko film laburren emanaldira.

Ikus-entzunezkoen proiektzioaren ondoren, Amaia San Sebastian "Tigre bat" filmaren zuzendari donostiarrarekin solasean aritzeko aukera izan zen. Bere lanaren inguruko azalpenak emateaz gain, egilea bere hastapenez eta ordura arteko ibilbideaz ere mintzatu zen hitzordura bertaratutako publikoaren galderei erantzunez.



## Miren Mendizabalentzat

### "Euskeraz bagera!" errifaren saria



Zuhatza Euskara Elkarteak iragarritako moduan, abenduaren 31n egin zen Foruen plazan "Euskeraz bagera!" kanpainaren barruko errifaren zozketa; prozedura bidez grabatuta elkartearen sare sozialetan zabaldu zuten. Elkarteak autofinantzaketarako sarrerak handitze aldera egindako ekintzetako bat izan da errifa hauen salmenta. Bi lagunentzako

asteburu pasa da errifaren saria eta Guardian (hotela+spa+bodega) edo Karrantzan (hotela+zaldi ibilaldia) egiteko aukera ematen du. 1856 zenbakiduna izan da errifa saritua eta 2101 zenbakiduna ordezkoa. Egunean bertan jakin genuen zein izan zen errifa sarituaren jabea. Ikaztegietara joan da saria, Miren Mendizabal Makazagaren eskuetara.





# EUSKERAZ BAGERA!

## ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



### LUKAX DORRONSORO

89 urte

1938: Eskolan hasi berri, egun onak ematen: "Viva España, alzá los brazos, hijos del pueblo español...". Euskaraz egitea debekatua.

1940: Aitonak ekarritako bertso-paperak irakurriz noa neure hizkuntzan alfabetizatzen; dotrina, apaizaren sermoiak eta bertso libururen bat lagun.

1945: Saturraranen, hiru ikaskideren mintzalagun egin naute, euskararen aldeko borrokari bilakaraziz.

1972: Deban. Martin Idiakenez borrokakide ezagunak bereganatu nau, eta geroztiko nire urratsak gidatu: GOAZen sorrera, kultur taldeekiko harremanak... ZUHATZA!

### IERA LARRAÑAGA

31 urte

Zuhatza elkarteak Deban euskararen presentzia bermatzen duelako. Gure hizkuntza eta kultura helburu izateaz gain, Berriketan aldizkariaren bidez herriko albisteak euskaraz kaleratzen dituelako, eta gure herria euskaldunagoa egiten duelako, hau da, Deban euskararen erabilera egunerokotasunean handiagoa izan dadin egiten duen lanarengatik. Herrian gure hizkuntza zabalitzen eta sustraitzen laguntzen duelako.



### LANDER AZNAL

30 urte

Herritik egina delako, herriarentzat egina delako eta honela euskarak gure herrian bere tokia bermatzen duelako. Hizkuntzak egiten gaituelako herri eta herriak hizkuntza behar duelako. Debako euskaltzale guztiak gonbidatu nahiko nituzke Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide egitera.

### ARANTZA IRIONDO

57 urte

Euskaraz bizi nahi dudalako, herriko berriak euskaraz irakurri nahi ditudalako, gure haurrek herrian udaleku euskaldunak izatea nahi dudalako, urtero Olentzero ikusi nahi dudalako, Euskal Jaia ospatu nahi dudalako... Elkarteko bazkide izanda horiek guztiak izaten laguntzen dudalakoan nago.



## EUSKARA BIHOTZEAN, BAINA EGUNEROKOAN?

Zer da kultura gaur egungo gazteontzat? Zer ohitura ditugu irakurri eta musika entzuteko garaian? Euskarara guk uste bezainbeste jotzen al dugu? Galdera horiei erantzuna eman nahian, Prentsa Tailerreko kideok galdetegi bat egin dugu Mendata institutuko ikasleen artean; hona hemen jasotako erantzunak eta haietatik ateratako ondorio nabarmenenak.

### KULTURA

#### Zer da kultura gazteentzat?


Herri bateko ohiturarekin lotzen dute ikasleek gehienbat kultura; hitz hori behin eta berriro azaldu baita beraiek emandako definizioetan: herri bateko ohiturak eta tradizioa, ohitura zaharrak, gizarte baten ezaugarriak eta ohiturak...

### IRAKURTZEKO ORDUAN

#### Irakurtzeko zaletasunik ba al dute gaur egungo gazteek?

Lehen zikloan, hainbat ikaslek irakurtzeko zaletasun apur bat edo nahikoa dutela esan arren, zaletasunik ez dutela esan dutenak ere asko izan dira. Bigarren zikloan ere gehienek ez dute irakurtzeko ohiturarik eta, izatekotan ere, apur bat soilik.

1. Irakurtzeko joerarik edo zaletasunik ba al duzu?  
12 erantzun



### Zein esparrutan irakurtzen dute?

Ikastetxean zein etxean irakurtzen dutela aipatu dute ikasleek.

### Zein hizkuntzatan irakurtzen dute gazteek?

Lehenengo zikloan, gaztelaniaz euskaraz baino gehiago irakurtzen dute. Hala ere, badago euskaraz irakurtzeko zaletasuna duenik. Bigarren zikloan, ordea, euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu irakurtzen dute. Hizkuntza horiek hautatzeko arrazoiak hurrengoak dira: batetik, hizkuntza horietan egotea gehien gustatzen zaizkien liburuak eta, bestetik, ikastetxean irakurrarazten dizkieten liburuak hizkuntza horietan izatea.

### Zer genero irakurtzen dute?

Gehienbat eleberriak eta komikiak irakurtzeko joera dute.

### Gai al dira Mendatako ikasleak euskarazko zortzi liburu aipatzeko?

Lehenengo ziklokoek bigarren ziklokoek baino gaitasun handiagoa erakutsi dute liburuen izenburuak aipatzerakoan. Dena dela, izendatutako liburu guztiak ikastetxeko arloetan edo irakasgai ezberdinetan irakurri beharrekoak dira, hala nola *Larunbatean Bukowskin*, *Jara*, *Ezekiel*, *Amaia Lapitz* edo *Beti iparralderantz...*



### Prentsa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbieto, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babestleak:





## MUSIKA ENTZUTEKO ORDUAN

### Ba al dute musika entzuteko ohiturarik?

Galdetegiaren arabera, ikasleek musika entzuteko joera handia dute.



### Zein hizkuntzatan entzuten dute musika?

Lehenengo zikloan nahiz bigarren zikloan musika gaztelaniaz eta ingelesez entzuteko ohitura dute batik bat.



#### Zein hizkuntzatan entzuten dute musika?

Lehenengo zikloan nahiz bigarren zikloan musika gaztelera eta ingelesez entzuteko ohitura dute batik bat.



2. zikloko talde baten erantzunak ↑

## ONDORIOAK

Galdeketa jasotako erantzunei erreparatuta, nabarmen ikusi dugu ikasleek, oro har, ez dutela irakurtzeko zaletasunik. Gainera, ikastetxean agindu edo eskatutako liburuak irakurtzen dituzte, batez ere. Ikastetxetik kanpo irakurtzen dituzten liburu gehienak gaztelaniaz idatzita daude.

Musikari dagokionez, bestetik, ikasleek ez dute euskal kantuen inguruko behar besteko ezagutzarik, ezta entzuteko joerarik ere, ingelesera eta gaztelania-ra jotzen baitute orokorrean.

### Zergatik entzuten dute hizkuntza horietan?


Hizkuntza horietan dauden abestiak gustatzen zaizkielako.

### Zer musika estilo entzun ohi dute?

Bi zikloetan pop, reggaeton, trap eta rock dira musika estilo nagusiak.

### Zenbat abesti abesteko gai izango lirareteke buruz eta osorik?

Ikasleak gehienak, bost eta hamar abestiren bitartean izango lirareteke gai abesteko. Horien artean, Hegan, Argitzero, Aurrera Altsasu, Itxaropen bideak, Gogoak, Errepidean, Ikusi arte, Aldapan gora, Sexuarekin bat, Aukera berriak, Sarri-sarri, Lau teilatu, Zein erraz den...



## ALBISTE LABURRA

### Nere Barrera eta Ane Iciar nagusitu dira Mendatako kartel lehiaketan

Abenduaren 3an Mendatako ikasleek euskal mitologiari buruzko kartel lehiaketan parte hartu zuten eta baditugu jada irabazleen izen-abizenak: 1. zikloan, 2B taldeko Nere Barrera izan dugu irabazle, Izena

duenak izana du lemarekin jantzitako euskal mitologiako pertsonaia ezberdinekin; 2. zikloan, berriz, 3A taldeko Ane Iciar, lamia hartu duelarik protagonista: *Lamiaren soinua, gure doinua*. Zorionak, bikote!



**URTARRILAK 23, LARUNBATA**

-13:00. "Dantza libre, gorputza askatzen" taiera, Uxue Pascualen eskutik, hondartzan.

**URTARRILAK 24, IGANDEA**

-17:00. Ipuin kontaketak, LHko haurrei zuzenduta, Luzaro ikastetxean (Ifar kalean).

**URTARRILAK 28, OSTEGUNA**

-19:00. Hitzaldia: "Zer da bizitza osasuntsua? Elikaduratik gure interdependentziak arakutzen", Kultur Elkartearen. Hitzalaria: Goiuri Alberdi.

**OTSAILAK 1, ASTELEHENA**

-12:00. Mobilizazioa Foruen plazan, "Adinekoentzat bizitza duina. Hemen eta orain pensio duinak. 1.080 euro" lemapean.

**OTSAILAK 4, OSTEGUNA**

-19:00. Hitzaldia: "Heriotza eta dolua gure gizartearen", Itziariko Burugorriren. Hitzalaria: Amaia Gozategi.

**OTSAILAK 6, LARUNBATA**

-11:00. Sendabelarrak ezagutzeko txangoa Lasturren, Gela Berdea taldearen eskutik.

**OTSAILAK 21, IGANDEA**

-17:00. Ipuin kontaketak, HHko haurrei zuzenduta, Luzaro ikastetxean (Ifar kalean).

**\*Oharra:** Osasun-egoera dela eta, baliteke agendan jasotako ekitaldiak bertan behera utzi behar izatea.

**Odola emateko deialdia**



**Odol-transfusioa eskubide bat baldin bada....**

**Odola emateak erantzukizun partekatua izan beharko luke**

-Otsailaren 12an (ostirala) odola emateko saio berri bat egingo da Luzaro ikastetxean, 17:00etan. Aste horretan bertan 623 328 408 zenbakira deituta hartu beharko da txanda (16:30etik 20:30era) edo WhatsApp-a bidaliz. Debako Odol Emaileen Elkarteak bertan parte hartzeko deialdia egin du.

**EuskarAbentura izena emateko epea zabalik**

-Osasun-egoerak ahalbidetuz gero, EuskarAbentura espedizioa bueltan egongo da 2021eko udan. Abentura parte hartu nahi duten 2004 eta 2005 urteetan jaiotako gazteek martxoaren 12ra arteko epea izango dute proiektua eta aurkezpen-bideoa bidaltzeko -oraingo hautaketa-prozesuan, 2020ko espediziorako aurkeztutako hautagaitzak ere hartuko dira kontuan-. Deialdiaren inguruko informazio guztia [www.euskarabentura.eus](http://www.euskarabentura.eus) atarian dago ikusgai.

**KZgunea**

-KZguneak YouTubeko hitzaldiekin eta ikastaroekin jarraitzen du. Urtarrilean arratsaldean egongo da zabalik, eta otsailean goizez. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus).

**ZAINZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urtarrilak 29, 30, 31.**  
**otsailak 8, 9, 10, 11.**

Burgoa Zuazo: **urtarrilak 25, 26, 27, 28.**  
**otsailak 12, 13, 14.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**  
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 6 eta 13

BURGOA ZUAZO: urtarrilak 23 eta 30

**9:30 - 13:00**



**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

*Zuhatz*

**943 191 383**

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)



**Uzuri**  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)


**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**




Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12



LIZ.-ZK.: 3 

# TaxiAlain Deba



[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus) **636 135 008**  
alain@taxideba.eus

MARIJE CASTRO Iribarren



- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

Masajista **28 URTEKO ESPERIENTZIA**

Tel.: 677 557 615 **DEBA**



**AUKERA INMOBILIARIA**

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



**ASESORIA DEBA**  
Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)  
Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

 N.º 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlo.net



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak


Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxes: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)



**ieraenea**  
ekodenda

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**kutxabank**



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**sasoiko**

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 [sasoiko@hotmail.com](mailto:sasoiko@hotmail.com)



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte gustian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



# 2021EAN ERE... EUSKERAZ BAGERA!

Zuhatzakide labur euskara  
elkartea

Argazkia: Martin Lores

**EGIN ZAITEZ  
ZUHATZAKIDE!**

**Urte guztiko bazkidetza  
30 euroren truke**

Jarri zaitetz gurekin harremanetan:

zuhatza2@gmail.com | 943 19 13 83 / 632 04 33 22  
[www.labur.eus/Zuhatza\\_EginBazkide](http://www.labur.eus/Zuhatza_EginBazkide)